

Mondragon Unibertsitatearen Galdaketako Masterraren diplomen banaketa

2007/04/02

Mondragon Unibertsitatearen Galdaketako Berrikuntza Teknologikoari buruzko masterraren diploma-banaketan zehar (graduondoko titulu hori aitzindaria da Europan), gaurtik 2020ra arteko sektorearen erronkak eta beharrak aztertuko dituzte galdaketaren sektoreko arduradunek, bai Euskal Herrikoek bai nazio mailakoek. Ekitaldia, Mondragon Unibertsitateko Errektore losu Zabala buru dela, bihar ostirala, martxoak 30, egingo da 11:00k eta 13:00k artean Aretxabaletako Otalora Jauregian.



Bihar, Graduondoko diploma emango zaie aurreko urtean Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak emandako Master horren lehen edizioan parte hartu zuten 17 ikasleri.

Ekitaldiak adituen parte-hartzea izango du. Horiek arduratuko dira merkatuaren, produktuaren, erakundeen, pertsonen eta administrazioaren ikuspegitik galdaketaren sektoreak gainditu beharreko erronkak aztertzeaz. Eusko Jauriaritzako Teknologiaren eta Informazio Gizartearen zuzendari Joseba Jauregizar; Galdatzaileen Elkartearen Espainiako Federazioko zuzendari nagusi Ignacio Sáez de Gorbea; Edertek-eko kudeatzaile Ángel Akizu; eta TS Fundiciones-eko zuzendari nagusi Aingeru Aizpuru izango dira 'Galdaketaren sektorea 2020an' aztertuko dutenak. Aingeru Aizpurua urteko enpresari aukeratu berri dute eta haren enpresak planta berria inauguratu du Zestoan.

Erronkak eta beharrak

Sektorearen datu nagusiak: sektorean guztira 141 enpresek lan egiten dute eta 17.000 langile dituzte. Sektorearen fakturazio-bolumena 2.176 milioi eurokoa da eta ia 600.000 tona esportatzen ditu. Hori da Estatuko galdaketa-sektorearen errealtatea. Gaur egungo egoerari begiratuta, berehalako arriskuei arreak egin behar die sektoreak: globalizazioari, garapen bidean dauden herrialdeen mehatxuari eta Estatuko eskulanaren kostu handiari; balio erantsi txikiari; teknologia zaharkituari; zaintza teknologikoari (sektoreari loturiko teknologia berriak eguneratzeari); eta enpresan teknologia berriak azkar aplikatzeko gaitasunari.

Adituen arabera, sektorearen beharren azterketak ezinbestean aintzat hartu behar ditu honako hauek: produktu eta prozesuen berrikuntza; produktuei balio erantsi handiago ematea (hortaz, produktu urtuak ez ezik pieza bukatuak eta multzoan muntatuta daudenak ere egin behar ditu, hau da, giltza eskuan sistema bat jarri behar du martxan); eta produktu berezituak bilatzea. Horrekin batera, beharrezkoa da prozesuak hobetzea, kostuak eta industriaren ingurumen-inpaktua txikitzeko, teknologia berriak garatzea eta langileak oso-oso ondo prestatzea produkzio-enpresetan, punta-puntako zentro teknologiekiko solaskide izan daitezten. Bitartean, prestakuntzaren arloan, adituak prestakuntza espezifikagoaren eta espezializatuagoaren aldekoak dira. Izan ere, horien ustez, sektore honetako langileek azaleko ezagupenak dituzte dauden teknologien gainean, eta horien espezializazioa enpresan bertan jasotako esperientziaren bidez burutu da.

Galdaketari buruzko masterra

Sektoreko eskariari eta beharrei erantzuteko, Mondragon Unibertsitateak, Edertek, FEF, Inasmet, Cetif eta Azterlanekin lankidetzan, iaz Berrikuntza Teknologikoari buruzko masterra jarri zuen abian, galdaketako arlo guztiak barne hartzen dituena: materialak, galdaketa, moldekatzea, matxeria, akabera, kalitatea eta kudeaketa-sistema. Masterra lanean ari diren profesional kualifikatuei dago zuzenduta, eta zentro teknologikoek eta nazioan bertan eta nazioartean ospetsuak diren txostengileek hartzen dute parte. Gainera, hornitzaileek eta bezeroek ere hartzen dute parte: hortaz, parte-hartzaileak egungo eta etorkizuneko egoeraren ikuspegi zehatza jasotzen du. Masterraren

barne daude: 345 eskola-ordu, 30 ordu enpresetara bisitak egiteko eta 150 orduko proiektu pertsonal bat enpresa batean.

Master honen garapenean, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek hartu dute parte. Masterreko gaiak emateko, berriz, aditu ugari izan dira: hainbat unibertsitatekoak, Zentro Teknologikoetakoak, enpresetakoak eta aholkularitzakoak. Horiek guztiek programako moduluak koordinatzeko ardura duen Mondragon Unibertsitateko irakasleen irakasle-lana osatu dute.